

741R

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
I.º ZENBAKIA

UZTAILLA
— 1977 —



LEN - G E R O

EUSKERA ZALEAK

BAZKIDE GUZTIAI AGUR

EUSKERA ZALEAK asko gaia, baiiaa alkarren barri gitxi daukagu eta orre-gaitik uste maten dogu sarritan e:er ez daula egiten.

Gaurtik aurrera bo da.ukaga alkarregaz artu-emonak izateko bide bat. Gure ZER. Ilbero artuko dogu guztiok.

* *

Orrialde au, a. alaren atzekoa, geutzal bakarrik izango da, besteak gutzat elagltlentz;al.

* * x

Eta zer irakurrik o dogu, edo idatziko dogu, gare /ER onetan?

Erriko kullu:rea eta, ..jakintza; Idazleri; ospetsuenak, gizandiak (heroes), alkarizketak, gaurko arazoak, baserri la arranzaleenak, aberri-gaiak, bertsoak, barriak...

* * *

Ez da ;laikoa gero, ZER artzea, irakurri egi bear da.

Era gura do.,uenok idalzi be bal. Po:ik artuko dogu zuen lanak.

Aberastu to osoluko at da orrelan gure erri jakintzea.

Izan belie dana, Erriaren onerako.

ZER - Idazkolakoak

BA DIARDUGU

Idazlan edo dana dalako onen EUSKERA ZALEAK izenburua ela euskera-zalea izatea, gaUza bi ta ezbarriak dira.

«Euskerazaleak» euskereari eutsi, euskerea irakatsi, mamitu, indar-barrizeko alkarlea dogu. Urru.neko illuna ikusten eben gizon buru-argiak sortua eta Bizkaian ,earko bazkideen esku zabale,, bizigarrilua.

* * *

Bazkun onen etxea KIRIli1,N0 euzkal-gaiezko idazlegilik, San Bixenle'ren, elezalik, Erri-Irrati ela Arana Goiri'larren sorlekulik beso luzelu batean dago, abando'n, Kolon de Larreategi kalean.

* * *

Gabon.-ondorengo ikasll.roan basleun ela geiago ikasten plin-plin bete zan ol,-egiterailo.

Gaur egun gilxilu. egin dira, baina dabillzanak, norberaren aberrian arrotz izateaz lotsatu.rik ela udaldian Lekeilio'n, Arralia'n Orozko'n, Elorrio'n edo beste erriren batzutan erriarrakaz ulertu al izateko egarriz, Bizkai-euskerea ikasten su ta ,gar diardue.

* * *

Au irakurriko dauan bat edo bate;.: bere kolkoari itaun dagiki-o: «Baina Onda-rabi'n, Oiartzun'en, %umarraga'n, Lapurdi'n eta Ba,tandarren Bill.;ar inguru-ninguruan izango ele dira gero gai, ezer ulertu ela ulertu arazoleko?

Bidea ibilliz egiten da.

Augoakaz ulerle ela norberaren urrengoan artean !Oulu i.,alea be, ez dogu biderik egokientzal.

Ikasi dagigun ba, etxean ibillen ela urrengorik urrengora Allun`i ibairaiizo bidea egiten. Bizkaiera ondo dakienak, edozein euskalkiren ° 80 daki.

.Iurrera la biotz on!

ANTON'ck

'' Z E R '' G A R A

ALDIZKARI BARRI BAT

Aldizkari barri bat daukazue eskuetan, irakurleok.

Eta lenengo berbak izan beitez zuei agur bero bat egiteko. Gaur zuek asten dogun alkar-izketa au, izango- al da iraunkorra eta onuragarria.

«ZER» da aldizkari onen izena, laburra ta errez esateko lakoa, zabala ta esangura aundikoa, itauntzeko egokiago erantzuteko baiño, erantzuteko be baliokoa.

Bear ba'da, esango dozu: Aspaldion asko idazten da, zergaitik aldizkari barri bat? -Lengoai laguntzea ta lengoak indartzea ez zan obeto izango.

Alde batetik zeugaz nago, baiña ZER egiten dogunok, alegintzen gara beste batzui laguntzen be, eta laster esango dautzugu zergaitik argitaratzen dogun aldizkari barri bat.

Aldizkariak naikoa ugari dagoz, egia da, baiña irakurri? Gitxi irakurten dalakoa daukagu; orita guzti be, irakurteko errez-errez izango dan aldizkari bat egin gura dogu eta ori erri zearen barruan irakurle geiago sortu daiten.

BIZKAIERAZ

Aldizkari barri bat aterateko daukagun zio edo errazoirik aundiena auxe da: Euskera idatziak gaur daukan utsune aundi bat bete.

Euskalki eder eta aberatsa dogu bizkaiera, euskaldun askok etxean eta kanpoan erabilten daben euskalkia. Eta bizkaieraz ez daukagu aldizkaririk. Euskerak daukan utsune ori bete gure geunke, oso-osoan ez ba'da be, neurri baten.

Bizkaiera, eta bizkaiera bakarrik, erabiliko dogu ba aldizkari onetan, agiri laburren batzuek idatzita datozen euskalkian izan ezik.

Gure bizkaiera ez da izango Bizkai-barruan leku batekoa, esaterako: Markiña'koa, Txori-erri'koa, Bermeo'koa edo Aramaiona'koa, bizkaiera batua izango da, Azkue'k edo Eguskiza'k edo beste idazle asko eta askok erabili eben antzekoa, baiña beti Bizkaia'k darabilten euskalkiari lotua.

Erritik artuko doguz ba, jostakaria, iztegia, esakunak, eta Bizkai guztian erabilten diran abotsak, toki bakotxeak ezin erabili doguz ta.

Ba dakigu euskera batu bat bearrezkoa dana eta egingo dalakoan gagoz, baiña ori ez da ZER onen elburua. Zalantza barik, bizkaiera ondo batuaz eta landuaz baturako lan egiten gabiltz.

BAKEAN

ZER ez doa iñoren aurka, ez dabil eztabaida-billa.

Iñork ikututen ba'gaitu, erantzun bear-ko dogu. Ez jako iñori ukatu bear min artzen dauanean ai! esateko eskubidea.

Guk eritxi ta gizon guztiai bakean itziko dautsegu eta geuretzat be beste orrenbeste eskatzen dogu.

Ez dogu nai ba, bego argi, berbeteari edo izkuntzeari buruz, gitxiago politikagietan, ez eta erlejiño gauzetan be, ez-lako eztabaida garratzik.

Bakotzak bere eritxiaz eta bere bidetik aurrera egin dagigun, garrantasun bako alkar-izketa anaikorra bide dala.

GAIK

ZER onek zelako gaiak erabiliko dituan jakin gurako dozu, irakurle.

Erri-maillan erabili leikezan gai guztiak erabiliko doguz, sakontasun aundira sartu barik, edozeiñek errez irakurri ta ulertzeko lez.

Gai batzuk aitatutearren, oneixek gogoratuko doguz: Jakintzea, euskerea, jazoerak eta barriak, aberria, abertzale-tasuna, lanaren arazoak (esaterako, baserria, langintzea, arraintzea) baita gizarte-arazoak, bertsoak, gaurko gaiak, kirolak...

Olako edo antzeko gaiak bizkaieraz erabili gura dabezan idazle guztiai dei egiten dautsegu. ZER'en bidean jokatu gura ba'dabe, besoak zabalik artuko doguz

ERRIAREN ALDE

Ondo dakigu aldizkaritxu onek zeregiña emongo dauskuna, iñoz ardurak eta buruko miñak be bai, naizta illerokoa baiño izan ez.

Sortuko jakun lan ori Euskadi'ren onerako izatea gura geunke.

Orixe da gure gogo ta gurari bizia eta guk orretarako ZER egingo dogu eta ZER egiteko laguntzailleak pozik artuko doguz.

GAURKO ARAZOAK


ESKUBIDEAK

AUTORMENA

«Gizonen eskubideak» esaten dogunean, alperreko berba bat erabilten dogu: Eskubideak beti dira gizonenak.

Gizarteak edo gizon izateak ematen dautsez gizonai eskubideak, eta orregaitik eskubide guztiak gizonenak dira.

1948'ko abenduaren 10' ean, Lasterri Batuak «Giza-eskubideen guztientzako autorpena» zin egin eben.



Askoz lenago, Prantzij'ko iraulketek, 1789'an, Gizonen eta Errilarren Eskubideen autorpena egin eban.

* * *

ZAPALKETEAREN AURKA

Mundu onen kondaireak, giza-nortasuna zapalduta egoala, aldi guztietan zeal, erakusten dausku. Gizonaren eskubideak e.: dirala aintzat artzen eta bere almenak ez dirala kontuan izaten eta bere askatasuna babes hark dagoala azaltzen dausku. nortasuna ez zan aintzat artzen. Menpekeria to joputzera gizarterik geienean egoan eta giza-nortasuna ukatzera, agiria zan danean. jopua, menpekoa, ez zan iñor, ez zan notiña, gauza bat edo zeozzer zan.

Orregaitik, autorpen orretan lenengo agertzen dan eskubidea, gizonaren nortasuna da.

* * *

NORTASUNA TA OSOTASUNA

Nortasuna legez onartu ezker, gizonaren osotasuna to duintasuna datoz urrengo.

Orretarako, oiñarrian bertan, kris pentsabide bat agertzen da: Gizon guztien bardintasuna, gogo illezinã fardoelako. Gizona jainkoaren antzeko la irudiko egiña dala diñosku Liburu Santuak eta gai orretaz Eleiz-Batar, Nagusian berba eder oneik aitatzen dira: «Gizonaren oinpean dan-dana ipifui zenduan jauna».

* * *

BERE BURUAREN JABETASUNA

Kristau-pentsakera ori zabal dabil gaurko eritzietan: Balio illezinãk daroaz gizonak eta itzaltasuna, askatasuna to bere buruaren jabetasuna, dor jakoz.

Gauza guztiak baiño lenagokoa da nortasun ori kontuan artzea. Gizona ezin leiteke izan saltzeko edo erosteko gal bat. Gizonaren duintasuna, kultura, da lenengo, ikurrin, dipen guztiak baiño lenago. A gin da gizonarentzat eta ez gizona agintaritzarent.:at. juan k'XIII'ak esan eban lez, notifra da erakunde guztien oiñarri la elburu.

* * *

AUTESKUDEETAN

Auteskunde-egunetan gagoz. Urren-goak udal edo aiantanzen tatarakoak.

Politika-alderdiak agertzen dausku euren jokabideak. Begitu dagigun ondo, beti, nortzuk doazan bide onetatik, eta geurea zainduaz, orrei lagundu dagiegun.

LETONA

IÑIGO TA MARI

AITARENİK EZ !

Don Diego Lopez de Haro eiztari trebea zan.

Bein baten, basurdeari itxaroten egoala, atx baten gainean neska hat ikusi eban eta here abesti zoliak entzun zituan.

Beragana urreratu eta guztiz ederra zan eta gainera ondo jantzita egoan.

Nor zara zu?-itandu eutson bizi-bizi.

Ni... etxe onetako alabea!

—Ba... ni lurralde onetako jauna... Gona dozu nigaz ezkondu?

Bai! Bein be aitarenik ez dozula egingo berbea emoten ba'daustazu.

--Tica ha, emoten dautzut berba ori!

Eta biak alkarregaz joan ziran. Neskea ederra zan, baiña ankea eukan auntzaren antzekoa.

Luzaro alkarregaz bizi eta seme-alaba hi izan ebezan. Iñigo, semearen izena.

TXAKUR-ASARREA ! AITAREN!!

D. Diego hasora joan zan baten. Basurde bat eizatu eta etxera ekarri eban.

Eta basurde ori jaten ebillela, azur bat jausi jakon lurrera.

Inguruko txakurrak ori ikusi ebenean, guztiak urreratu ziran tximistea lez eta sekulako asarre-aldia egin ondoren, alkarrari aginka geratu ziran.

D. Diego'k ori ikusi ebanean, ataren eginda, oiuka esan eban:

—Ene, Andra Maria! Ez dagidala nik olakorik ikusi!

Egin ha chan egin eban aitaren oni!

Bere emaztea heingo baten zutundu eta here seme-alabei tiraka asi zan. Baiña aitak here Iñigo oratu ta beragaz gorde eban. Andreak here alabatxua altzoan artu, gona jaso eta lciotik urten ondoren, mendian betiko galdu zan.

TOLEDO'RA

Andik ante batzutara, D. Diego moroakaz burrukan ebillan eta moroai< azpiratu, atxillotu eta Tolcdo'ra eroan eben.

Eta semeak ez eukan ori eroateko beste croapen. Batu zituan Bizkai'ko s,erneak eta aita zelan salbau leiken itandu eutsen. Eta oncitariko zarrenak esan eutsan:

Zoaz basora eta eskatu egiozu laguntza zure amari!

Eta Inigo, zaldi batera igon eta mendi-tontor batera joan zan. Antxe bakar-bakarrik egoala amaren berbea entzun cha ir :

Erdu, crdu nigana seine! Zure aita zelan salbau jakin gura dozu, ez?

---Bai, ama, hai!

Itxaron!... \ 'abar! Nabar! Arin ona! Eta zaldi eder hat etorri zan ariñeketan baso bal-tzetik. Andreak zaldiari jaten emon eta esan eutson scmeari:

E,. dagizula, seme, iñoz nine zaldi au ugal onto zela hank itzi. Zugaz izan egizu betiko eta zone burruka guztietan nagusi urtengo dozu.

—Benetan ama?

Bai. Artu orain zaldi ori eta zoaz arin Toledo'ra eta an egon illuntzenaiño. Gero urreratu aita dagon etxera. Sartu bertara. Artu aita besapctik. L; rtes kanpora. Igoa biok zaldi gainera. Eta gaberako etxean izango zaree.

Dana jazo zan amak esan eutson lez.

ANBOTO'KO MARI?

Andik unto batzutara il zan D. Diego eta Bizkai'tarrak Iñigo artu ehen jauntzat.

Arrezkero esan eben, eta gaur be esaten dabe, Anhoto'ko sorgiña zala Iñigo'nen ama.

ESTOMBA'tar 2vlanucl'ek

JAKINTZA AGURTZEN

BIZKAIERA ZALEOK

ZER aldizkari jaio barri onen izenean, nere lenengo agurra Mokoroa Aitarentzat izan da, ta asmo ori berari azaldu ondoren, beragana jo neban goiz baten.

Baten batek esango dausku: ain bizkaera zale agertzen jakuzan aldizkari onetakoak, zergaitik gipuzkoar bategana?

Erantzun erreza daukagu itaun orrentzat: Mokoroa aitak izengoiti bako auskera maite dauelako, erri euskera, gure enda edo errazaren izate be-reziarentzat erakuskarria dan izkuntzan goi mail-lako maixu dogulako.

Orain dirala urte pare bat inguru, nere alabatxoari Bilboko Gran Via dalakoan, esandago berbak ez jakuz aztu niri ta nere alabeari: «maite egizue zuen bizkaiera, aberatsa ta politenerikoa da ta.

* * *

AITA MOKOROA EUSKALKI-ZALEA

Baiña Aita Justok euskera oso osoan maite dau, urteetan zear burn belarri sartuta, azter-lan sakonean diardu eta ia, ia here bizitzako amets ederrena burutu dauala esan geinke. Gizon langillea izatea ez da naiko olako Ian bat egiteko,



orretarako jakintsua izan bear da... baiña ez neuke bere apaltasunean mindu gura; ordu bete luzeko jardun aldia izan gendun, biotzak, nekeak eta oiñazeak alkarrerri azalduz; benetan pozgarririk izan ziran jakin nebazan barriak.

Gure asmoa azaldu neutsonean poztu zan gure gizona, asko ez bada be zeozer izango dalakoan bizkaieraren alde.

*

BERE LANA

Gero berak, here lanaren zeaztasunak emon eustazan: gizaundi baten lana benetan!

Ara zenbaki batzuk naiz eta onek lanaren garrantzia bear dan lez erakutsi ez.

Gutziz 92.500 esaera ezbardin batu ditu ortik eta emendik, bakoitza txartel berezi baten idatziaz. Euskerazko esaera bakoitzak erderazko itzulpenaren laburpena dakar, erbesteko izkuntzalarien eta ikasleen laguntzarako. Esaera jator orreik 1250 egillegandik artu ditu iturriak 378 dirala. (Iturri oneik batzuetan liburu bakarrak dira; beste batzuetan, aldizkari edo eguneroko bilduma osoa «iturri» bakartzat zenbatzen da).

Lan osoak 4.200 orri alde inguru betetzen ditu, lerro bakarrean idatziak.

* * *

ORAIN AMAITZEN

Lana eginda dagoala esan leiteke. Orain Aita Justok esaten custanez, Fitxa edo txartel bakoitzari «bere izen-abizenak» ipintzea falta jako, au da, bakoitza here sail berezian ipintzea. Beste urte baterako lana au here, ta ez edozelakoa. Iru edo lau erbesteko egilleen sistemak aztertu ondoren, euskerari obeto dagokiona asmatu dau berak.

Era orretara banandu ta berezitatea, 1000 orri-alde inguruko lau tomo lodi izango ci dira. azkenerako.

* * *

ESKERRAK ETA OMENALDI BAT

Oneik dira zenbakien txirotasunak erakutsi ezin leizkigun lanaren edertasunak baiña argitaratzen danean, gure eskuetan bildumaturik eukiko dogu euskera amaren gogo bizia, euskal nortasunaren gogo berezia.

ZER apal oneri izenean, eta Euzkadik, Mokoroa Aitari zor dautson omenaldiaren zain... eskerririk asko!

ARENAZA' tar JOSU

EUSKERA

—Guk bizkaieraz, Dabid'en burrukea.

—EGIN batuz, DEIA?

Euskera errikoian argitaratuko dan ZER illerokotxu apal onegaz erdi-

batera, eguneroko indartsu bi agertuko dira edo agertu dira: DEIA bagillean eta EGIN iraillean, diñoenez. Biak «euskera batuan» izango ei dira...

Gure bizkaiera errukiarraren bizigurea ta orretarako burrukea «Dabid eta Goliat»-en artekoa dirudi. Baiña zer arraio! Eutsi daiogun geureari ta gerorako kukurrukuak!

GURE ATHLETIC

—Len bateratzaille.

—Orain politika-jokoa: onerako?

Bizkaitarrantzat bateratzaille izan dan gure Athletic, arriskuan ikusten dogu giza-bizitza aldctik.

Urterik txarrenc tan, euskaldunen ikurrintzat euki gendun, beste «gora»rik esaterik ez egoalako.

Baina orain, politikagaz, (len be bai?) nastatu dala deritzagu.

Batzuk auteskundeetan irabazle urten dabe, beste batzuk galtzaille, betiko moduan.

Ortik banakuntzea ta asarrea datoz bazkideen artcan.

Onerako? Txarrerako?

Geroak erantzuna, baina gure gus-toko oinkadea ez dala izan autortzera ausartzen gara.

POLITIKEA

—Siglak eta barriketak.

—Aurrelari barriak.

Sigla edo «letra-saltza» ormetan eta «paper» guztietan; itzaldi ta mitiñak nun-nai; beste barriketarik ez etxeetan, tabernetan, lagun artean eta lantegietan.

Lantegiak txarto doazela? Ta zer? Felipe Gonzalez'ek konponduko ditu... edo «anai Santiago'k»,

Zer sortuko etc da?

Guk «histori» bako alderdi ta alderditxu asko ikusten ditugu, erdipurdizkoak.

«Histori» luze ta aundidun alderdi batzuetan «histori» gitxiko gizonak aurretik. Olakorik entzun gura be ez eurak. Bai ba, atzo goizekoak dira ta...

Olako egoeran, odei baltz artean, geroko eguzkiak nundik nora urtengo dauan. Jaungoikoak bakarrik daki.

Dana dala, gogorra ta artetegagarria, «Jaungoikoa ta Lcga Zarra» orregan sinisten dogunontzat.

MU EGAI\

ARRA TIA' TIK

AKEITA ETA KAFEA

Euskerea politikatu ta erderatuten diardun batek, akeitari ta kafeari buruz, onan: Kafeari akeita deitzea sabindarkeria ta garbikeria besterik ez ei da. Euskeraren kalterako astakeria.

Akeita, antziñaren bateko napatarrak bedar berezien baten egos-tetik ateraten eben saldea ei zan, kafea agertu zanean ezetsia ta bazterreratua.

Orain, teilleari buruz, nire aburu ta eretzia emen:

Teillea asmatu geroztiko etxe ta bizilekuen goi-ganak teillaz esaltzen asi ziran, gizaldietan zear egundaño jarraituz. Gaur-egun ba dagoz orraitio burdinkizko, beira, leiarkizko, uralita eta zementoz estaldutako etxeak. Zergaitik, zer dala ta, deitzen dautsegu teillatua eta zergaitik ez burdinkitua, beira-tua, edota, kristaltua, uralitatua zementotua t.a.?

Orren pekatu aundia ete da, gai barriai izen zarra ezartea?

LANDAJCELA'tar Andoni'k

BARRIAK

BILBO'ko BARRIAK

Babcock & Wilcox diru aldetik t_rarlo ei dabil angu langilleak orrillako alogerak L onen 8'an jaso ebezan. Beste aide batet& tarrunurroa dago, langille bait-lick San-fonder edo Amn'rio aldera li'alduko dabezala, baina txarrena ezta ori, entzuten denez beste batzuk kalean aurkituko dira. Zer jazo da emen? Bear bada orain arte nagusi asko la benetako langille gitxi egon dira, ela orain, gauzak txarto doazanean, zer-garrik langilleak galdo hear?

Orr'llaren 31'nn Bilbo'ko Ciudad , jar-d'netrik Sordikaraoa yoyan bnllziakhere azken osteria egin char?. Diranik emoten e, ebalako motto egin eben. Ori dala ta Soulika ta here inguruko auzunce/ako bizilagunak agerpen bat egin eben Bilbon FF. CC. Suburbanos'ko idazgela aurean, (wren ordoeza adierazteko. Orain uric batzuk dala Ciudad , tarrlinelik Bilboraño , atia moztu egin tan burni-bidean lur batzuk jausi ziralako, arrezkero tren a ezta barriro andik ibili.



Bagillaren 8'an Obras Publicas'ko JYi-nistro jauna Bilbo'a etorri tan, Bilbo'lik Barakaldo'raño doan autohidea zabaltzeko. ori dalata As,or Ibarreko bizilagunak Sordika'ko egazki-zelaian balu ziran Minis-tru jaanagaz berba egiteko, tren a dalata.

Azkenik, euren guraria lortu eben eta urrengo egonean bnllzi ori (Ciudad jardin-Sondika) barriro asi tan ibiltan.

Ministroak alxaki bat jarri eban., alegia, egun balzuelan 300 laucrleko baño ez ziral a batzen (A'ik an e, dot sinisten).

Orain jendea pozik dago aide batetik baña beste halelik bildur da, emendik den-bora gutxirako au/obus batzuk ipiitiko etc dabez bultzia hein betiko kentzeko.

Care ustez antobnsak jar,ca ezta nren-bidean, egin bear dana zero da: Ciudad jardin eta Bilbo arloan, bumi-hide gañean

dagozan lurrak kendu hear dabez tren a Bilbo'ko Kaltadas'ko geltokiraño eldu daiten. orduan 300 larrerleko baño asko geiago emongo dauz tren onek, hai orixe! Au egiten ez dan bitartean, circa tella/a'ik, aster] da.

Bultzia edo tren a zertarako da? 7en-deari serbitzu bat egiteko ala jarnlxo ha-/tam sakelak beteteko?

* * *

7,ANGRONIZ

ZEURIA DEUSTUN

Deustu'ko kale-etxe bateri «Zeuria» izena ipiñi dautsoe.

Izen polit au ipiñi dautso, berak egindako Kafe-etxe bateri emengoa ez dan gizon batek. Gizon ori ez da euskaldun, ez da euskotar, baiña bai euskozale eta maite dau Euskalerria. Galizia'n jaioa da eta beste erritar asko lez, Euskalerrira etorri zan lan-billa.

Gizon argia ta ekinzalea, lagun ota ta ulcrkorra, sustriak egin ditu emen eta lagun artean onartua izan da.

Oin-oialak barriztutcu asi zan eta ckiñaren ekiCicz eta alegiñez eta bu-ruargiz jokatuuz, ondo joan jakon here zeregiña eta laster cdozetariko oin-oialak, apaiñenak be bai, saltzen asi zan.

Lur-azpiko herebillak izteko lekua egin ondoren, Bilbo'ko Lnparmiza Barria harriro zabaldu da edo obeto esateko here ingunian egozan ormak apurtu ta bota egin dabez Uri-Zarreko bizilagunak.

*Ori gauza itxusia egin dabena, Bilbo'ko enparantz(a Barria orde, *1(1dril'go Plaza Mayor dirun/i. dana arria.*

Len beintzat zugaitz batzuk egozan batza orain arria jartzea askosaz merkeago dala dirudi, bestelan lore-tain bat egon hear da ta, ennen. ere norbait eldu ibili da.

Bertako andra batekin ezkondu zan emen eta sendi on bat eratu eban.

Alabatxu bat eukala it jakon andrea. Samin-aldi ori igarota, gartsu jarraitu eutson bere zeregiñari ata ondo in ten eutson.

Orain kafe-etxe polit au zabaldu dau, aundia ez baiña polita, txairoa, liraiña... eta Kale Zeuria ezarri dautso izena.

Gugana Jatorkuzan gizataldeak, Abando'ko Arranoa deritxon Sabin illezkorrak diñoan Iz. lortuko dabe Euskadirako euskaldun ata euskotarrok bakarrik orain ante ezin lortu izan doguna.

LETONA




ABERRI MUNDUA

TXIKIEN ARTEAN

Gizadia aberriz beterik dogu. Oraintsu beste barri bat Aprika.n sortu bar'ia da. Gurea lakol.rea, txikia. Erri bakoitxarentzako berea. Gurea alan da be, Euzkadi da.

T.eiki samarra, neke-, miñiez jota, arerio txiki la. aundiz inguratuta ezeze, Troia'ko zaldiak here zilbor-sabelean gudariak eroazan legez, to gure barne-muiietan bizien (Cancer) bat lez, barrutik gu ta gure Erria jan la ito bearrean ipiiiiazoteko gertu-gerlurik dagozan etsai amorratuak doguz.



Danok dazauguz arerio oneik. Enoa euren azalpen bat egitera. Ori la be ez kikildu. Cure Erriak ezagutu ebazan joandako gizaldietan guneta egokera obeak. Ori berbera lortu bearrean gagoz orain be.

SAMINALDIETAN

Azaltzera noatzue orain, gairidika (gaingirob) bada be, gaur eguneko naigabe ta samirz aldi banaka batzuk.

Aspaldi batetik onuntz gale aberri maitea .zabunka, Kill-Kato la ia ilzorian legez aurkitu data autortu bearra dogu. F la ez tamalez edozelango txar-itxuria gure erri ta ingu umari oindiñ_o nabaitu oi doguna. Cure Euskal-Erriaren inuiz la sustrai-sustraielalik sortu ta indarnaren aundi.; borborka dariona baino.

ERRUDUNAK

Erriak la erantzukizunak begiztalu ezkeroz, zerbait, zerbaiten, danonak izan daiteke,___: baiira azkenengo berrogei uric onetan jasan. bear izan doguzan estutasun la izugarritzko neke-sanziñelan, la guzti onek dakazen, ondorio negargarrielan erru ta Katie onein zio la zergaitia. ezartzea., zinlzoki jokatzeta litzakela deritxat.

Politika-arloan ez dago zer esan bearrik, gale aberrirako oso galgarria izan. danez. Gizarte la diru-oiiz edo ekonomi ara.zoel.zaz beste ainbeste de.sakegu, la u.-_kurtz edo erlejifro la euskera gaielan zorahiauta legez, herein nolintz ibil.'r dabillega edonok ikasi ta artu le

GORATZAILLEAK

Dagigun ha guztiok Galera aupada benetako bat gure aberri maite zoragarria jasoleko. Bakoitxak here neurrian, here indar gaitasunen araheran. time koskorrak ama euskerea obeto ikasi la zaintzen; gurasoak euren ume ta gaztediagaz la bakoitxaren arazo rw iekaz, arduratzen... ta orain abar luzatxo baten o ^'orez... grzk irakasle la ida²leok Euskal-Erriko la bere "arneko asmakizun ta arazo garranzilsuenak lenen la. 1 i n. gure Euzkadi minduan, la ondoren ludi guztiaren aurean aizatzen la ardura-azoteu.

Oingoiz au izan dedilla gure jomuga, danok alkar-lurh: iritxi da.,igala gure aberrirako epe labor bateau al bada, elburu itxaropentsu la iraunkor bat.

Bilho'n, 1977'garrenoko Lorailak-11.

ARREGI'TAR JOSU

BERTSOETAN

ARRATIARRAK URKIOLA'RA

Antxifiatik dauke arratiarrak Antonio deunaren jaia igaro eta urrengo zapatuan Urkiola'ra joateko oiturea. Aurten Zerberio, Ugao ta Orozko ez doguz i usi an, tamalez.

Arrentza edo errogatibea esa en eutsoen gure asabak oitura oneri. Orduan oiñez joaten ziran eta santum arrentza abestuez urreratzen ziran santutegira.

Aurten be an izan dira. Urte batzuk dirala, arratiar guztiak egun baten joaten gara geure alkartasuna adiazo ta osotuteko. An mezea ta damu -sakramentu batzangoa egiten doguz.

Etc dauko orain esangurarik errogatiba onek?

Baietz uste dogu. Baserritarrek Jainkoagandik ur bizi dira, eurengan ondoen alkartzen dira «lurraren indarra, matsondoaren indarra, ta gizonaren lana».

Egun au, esker-egun lez artzen dogu orain, eta baserritarrentzat poz-eguna izaten da. Gero andik Estibaliz'era joan giñan.

Baserritarren pentsakera onein agerle izan daiten, aurten bertsolari bat izan dogu an: Pujana'tar Basilio, arratiarra, Zeanuri'koa.



BASARRI

Ara bere bertsoak:

MEZEAREN ASIERAN

San Antonio Urkiola'ko
Euskal Erriko lurreen
Mendirik eta ederrenean
Bizkaia'ren gallurrean
Andoni Deuna, arratiarrok
Gaukazuz zeure aurrean
Errogatiban etorrikan
Fedezko lege zarrean.

Mund-, ontako Paradisuan
Zeure agun zendun Jesus
Urkio 'tik igaro ziñan
Jarra zen bere pausuz
Santu aundiaren altasun eta
Grazi aundiak daukazuz
Gure lantegi, gure abere
Ta gu bedeinkatu gaizuz.

Antonio'ren aldara aurrean
Gaur egin gara alkartu
Meza eder au asi aurrean
Egin gaitezkan autortu
Gure artean akatsik ba'da
Bertan alkarri parkatu
Asmo eder au ez dakarrena
Alperrik emen ez sartu.

ESKINTZA-ALDIAN

Andoni Deuna, oso zailla da
Izatea nekazari
Baiña munduko pasadizuan
Auxe tokau jaku guri
Guztia dala gogo onakin
Dana daukagu opari
Zure bitartez eskinduteko
Alguztidun dan Aitari.

Agiri dana eta ez dana
Gure Jainkoak egin du
Au olan dala geure kontura
Guk ezin geinke agindu
Augaitik Jauna guk gura dogu
Guztia zuri eskindu
Eskerrik asko daukagun arte
Ta nai dozunean kendu.

PUJANA 'TAR BASILIO

MEZA-AZKENEAN

Deun Andonigaz egondu gara
Minutu batzuk alkarrik
Gutaiko iñok ez della esan
Egon garala alperrik
Zaindariakin bat egoteak
Iñon ez dauka neurririk
Eta eskerrak emon daiguzan
Iñon ba'dogu ezkerrik.

Poz aundiagaz ikusi eben
Benetan neure begiak
Eten bagarik antolatutzen
Abade zuzendariak
Jaunari eskerrak, oindiñoakoan
Ba daukaz gure Erriak
Bide zuzenai jarraitutzeko
Abade agurgarriak.

Lege zuzenak jarri zituan
Kristo gure Erregeak
Baiña jaun batzuk aldatu nairik
Dabiltzaz bere legeak
Ta orren aurka jarri jakuzan
Euskal Erriko abadeak
Eurai eskerrak ba dau arnasa
Euskalerrian fedeak.

BEDAR-LANA

Basoak, soloak ala abereak

Baserrian beti izan dira arloen artean burrukak. Aberedunak ziran lenengoak eta oneik ziran lur guztien eskubidedun, jabe izan barik: baso guztietan erabili eikeezan euren abereak.

Gero baserritarrak agertu ziran eta inguruko lurrera jabetasuna lortu eben. Ez artzaiñakaz burruka barik. Gaur be ba dago olako burrukea.

Baiña aspaldion irugarren arloa datorku indartsu, zugaztiduncna. Oneik, solo izan bear leukeen lur-zati asko zugazti egin ditue, orrelan lantegiko zeregiñagaz baserria errezago alkar-tzeko. Gaurko burrukea, piñuen ta soloen artekoa da, eta piñudiak dirudie indartsuagoak.

* *

Abereen janaria

Abereen edo ganaduaren janaria da gaurko arazorik aundienetariko bat.

Lurrak emona da merkecna, eta orregaitik emoten dau bedarrak ainbesteko lana.

Bedarra bear dau aberedunak, batez be negu Zelan pillatu?

Bedar-siloak egiten dira aspaldion eta elburu au lortzeko oso egokiak dira, batez be lcgortu bako bedarra izanik, legorrak ez dituan indargai batzuk ditualako.

Orozko aldian dago bedarkin edo bedar-fabrika bat, bedarra arlo txikian eta ugari lortzeko

era bat. Egunen baten ara joan eta ondo aztertu bearko dogu.

Baiña antxiñatik gure baserrietan bedar sikua izan da negurako janaria, laztategira sartzen dana edo etxe-inguruan pillotuten dana.

Auxe da, ain zuzen be, aldi onetako lana.

*

BEDAR SIKUA

Urte guztietan, baiña batez be urte euritsuctan, eta aurtengoa euritsua izan dogu bat izatekotan, Ian aundia ta gogorra .izaten da bedar sikuaeren bearra.

Lenengo ebagitea. Orain ebakiñak dagoz, baiña sarritan ezin sartu izaten dira, lurra zelaia ez dalako. An-or-emen ikusten doguz baserritarrak, goizean goizetik asita, euren kodañakaz bedarra ebagiten, geienetan auzoen laguntasunaz eta, len domeketan egiten zalako, erriko abadea asarre zala.

Gero zabaldu, geroago buelta bat edo bi emon, urrengo batu ta burdiratu eta azkenez laztategira sartu. AI ha da euriaren buzti-aldirik artu barik.

Negurako laguntasun aundia izango da bedar ziku au. Ortik etorriko da ainbeste izardi emon lanaren frutua.

OLAZAR'tar Martin'ek



SORNE UNTZUETA

Euskal literaturan ez dira gitxi euskeraz idatzi daben emakumezkoak. Danak bat-banatzera ezker, mordo egingo leukie. Bizenta Mogel' asi ta gaur idazten dabene-taraño, Jone Azurtza' ganaiño abidide: . izen-erreskada polita cioko geunke. Azken urteotan, izan be, aomen andikoak ditugu: Tene, Julene .\zpcitia, Onintze, Mahe, ta abar; guztiokiu sail ederra osotzen da. Onein artekoa dozu Some Untzueta be.

Lauaxeta bizkaitar olerkari gorenak sarri goratu eban euzko-emakumea, bertsoz eta prosaz. Eder ikusten zituan euskal alabak, naiz sukaldako arazoetan langille, naiz gizarteko goraberetan, politikan, ofiziñan... Eurok bai dira geroaren itxarokizun: aundi-kiro abesluak daukaguz bere poemetan, eusko alaben soin-edertasuna ta biotza.

Enrakuntzaren biotza, izan be, arrokeri ta andiputzak —edo-ta lizunke-riak— usteldu barik dirauanean, ederra dogu, zoragarria; literatura testigu, zelan ikusten zituan gauzak, esate baterako, Txile'n jaioa izan arren, zanetan eusko-odola eroian Gabriela Mis Biotz icon, adeitsu, samurra darakusgu dardaraz «Ternura» bere poesia-liburuetan atsegingarrian.

Euskal idazle

Sorne Untzueta be euskal idazle ta olerkari dozu. Prosaz eta bertsoz idatzi dausku. Abando-Bilbao'n jaioa da 1900-11-2Ten. Berton osotu zituan bere ikasketak, Maistra karrera egiñik. Gero, Errigoiti'n, Plentzia'n, Lemoan eta Berango'n eraktsi eban. 1930'an Lemoa'tik idazten dau «Euzkerea» al-dizkarian.

Errepublikara garaian batez be, 1931'tik aurrera, erririk erri ibilli yakun izlari crime, eusko emakumeak erri-ke-ta ta politikan daukazan betebearrak euskeraz eta erderaz adierazo ta zabaldu. Gerratean Prantzi'ra anka egin euskun, Paris'ko «Euzko Deya»-n olerki batzuk argitara ctononik. Gaur Euskalerrian bizi da.

Euskal idazle dogunez, Bilbao'ko euzko gaztediak zuzentzen eban «Euzkerea» -n, «Euzko Deya»-n esta Gua «Euzko-Gogoa»-n azaldu ditut batez be, bere idazlanak. «Utarsus» izenordea, edo laburtua, erabilli dan sarri.

Eden izan dau bere arloko gaiak erabiltea. Ikastolan ikusi ditun gaitzak eta erreztasunak, umetxoak euskeraz ta erderaz ikasteen, esaterako. Zentzun andiz biribildua dau «Ikastoletan bi elez» deritxan lana. Ba-daki ondo be umetxoen biotzak zelan za-

baltzen diran, eta adimen-orriak; zelako burruka sortzen dan, laiño artean lez, bi izkuntzen artean; burruka ortan zelan jokatu bear dauan irakasleak, eta umetxoak.

Olerkari

Biran daukaguzan gauzak eder opa-ka dagoz. Gu, alan be, ez gara sarri ortaz konturatzen. Eder-jasotzailleak bete biziko pozak izan oi ditu: olerkariak geien bat orrelakoak izaten dira, inguruko ederraz konturatu ta barruz be ederra, euren snez ta jakitez, sortu ta biribiltzen dabena. Zeregin duiña, gurena ziurrik asko.

Ortan alegindua da Sone. Ba-daki inguruko ederra jasoten ba-daki baita, barnera hegira, ederra, erlcak cilia lez, adimen eta biotz-errotan eio ta moldatzen. Olan ondoan dan olerki mordo. Dirala ogei ta lau bat uric, neure «Milla euskal olerki eder» li-burua eratu nebanean, Utarsus'en bi be «-Gonwtakiak» eta Gogo ituna» -bertan sartu nituan.

«Gomutakiak» zortzi ahapaldiko poesi leuna dozu. Gaztetako gonsntak ya torkoz, gozo ta samur, gogora. Ibai ondoan dagoan bide zabaleraiño dator. gaur be, antxiña lez, itxasotiko kresal usaiña. Orrek lo egoan gornuta bat berbizten dautsa: begi urdin batzuk ixetu. Olerkariak:

«Zugatx ostian zagoz, enc maitia?» ditauntsot one baten. Ez, begi urdiña dagoz nigandik urrun, izarren antzez, neuretzako betiko lortu eziñak».

Ibai gldiak basta dauko barruan. goian ur gardenak; azalean, «antzc-zura lez», ontzeko margoaz margoz-tuta dago. Gaiñetik beintzat eder! Olerkariaren arima be, itxaso antzekoa yako; gentza ta bakea ipiñi gura leuke barrenean. Baiña ez yako erre. Giza aiztu eziñak izanda be, benetan dira basazkoak. Itxaso barrua noski! Baitia azalean, itxasoan lez, ez etc da ur gardenik? Bai, ba-da basazkoa baiño gorago dan zerbait. Maitasun hi, goragokoak, aitatzen dauskuz emakume olerkariak: jainko maitasuna ta Aberri maitasuna. Qua:

«Eurak baño gorago, Aberrientzat maitetasuna, auxe da, ur gardenak. Baiña gorago ondiño, dan bikañena jaungoikoarentzako maitasuna».

Sarri izan oi dau gogoa itun; jente artean dagonean, mitxelctak argi inguru lez, dabilkio tamala, ta bakarrik dagonean, kendu eziñak yakoz mitxelta baltzak. Negu biotzean galdu yakon maitearen irudiak dira; alan

be, ez dan nai guzur-atsegiñik, gurago dau bakarrik. here gelan, egotea; ez, ez doa ludi onetako alai billa. «Gomuta it Linen tainala da neuretzat gozo. maite», diño,

Zelako idazle

Egiñetatik da gizona ezagun. Idazle idatzietatik. ez izan dudarik. Sorne Untzueta be, here idazlanak darakuskue noraiño idazle dan. Ona i930'ko urtarrillean. Lemoa'tik «Euzkerea»-ra bialdutako lantxo baten zati au. Berta n diñoskuna guztiontzat dator ondo, geurea zaintzen ikasi dagigun.

«Eztozube entzun, ene irakurliak dido lengo egu uan genre crijan jazo dana.' Emengo langille batzuk, biana lagata olatik urten, eta curets etxectara eldu baño lenago, ardantegira santo ziran, alkarregaz ardao pizkat edateko asmuz. An geure elez berriketan inarduhela, oi dan lez atzerritar hat sartu zan, eta jakiaña, ez eutson ondo eritxi euzkeraz cgitari; ez, ba, abo gustijentzako cgiñikua eztija beta be ez da-ta, ta curakana juanda esan eutsen, here aurrian ez erabilteko basatijen izkcrarik.

«Geuriak he mutuak etziran ta, adortetsu ta gjxa-lagiz aldezu eben crabillen euzkera ederra. Lenengo urten zan atzerritarra makaldutera yola ikusita, beste curetar batzuk lagundu yakozan; alperrik, baña, cuzkeldunen alde urten ebenak geyago izan ziran-el a. Azkenerako sortu zan sortu biar zana: burrukia, gudia! An ixan ziran galopadak, arrapaladak!... Zen ixan zan angu apatxotsa «Age-re»-tik aurrera!..

«Auxa da jazo zana. Zer deritxazuhe? Tamalgarrija ta lotsagarrija dala diñuc batzuk; nik baña besterik diñot, burrukaldi ori, euzkeldun orontzat dala onuratsu-onuratsuba. Zen bal... Gura dabon gusija esaten itxi? Lz olakorik, aldcztutia azke dagon arte beintzat! Onelako cztabaidatxubak egu biar litzakez, zaurijan ukutuagaz, zauriduna bizkortu egiten da-ta. Dausgunez, ha, geure-geuria dogun euzkel-ele ederra aldeztuteko, nok zirikatu biar dogu, ta egunoro zirikatu ezker, euzkeldun odola bixi-bixi egin-da, bere-bcriak diran gauzak aldez asiko litzake».

Onelaxc, argi ta zentzunez, idazten dausku beti Untzueta, euskal idazle jatorrak. Zergaitik daukagu gaur ixilik. Geurea aldezu bearrean dagoz, ba! Urteak cratxi, bear da? Euskal idazleak criotzaraño karta bear dau.

URDANETA

- *Sorkaldeko giltzaren billa Elkano'gaz*
- *Bakarrik, Molukas'en galduta*
- *Lisboa'ra*
- *Mexiko'n errejidore*
- *Praille agustindar eta meza barria*
- *Barriri Sorkaldeko giltzaren billa: Bost itxasontzi ta lareun gizon, Legazpi'gaz*

Arazo aundi bat sortu zan Ameriketari, Elkano aundiak munduari inguratze osoa egin eutsonez gero.

Biribilla zan mundua eta munduko etxeak ate bi zituan.

Sorkaldeko atearen giltza ba eukuen, baiña ez sorkaldekoarena.

Alegin asko egin ziran giltz orren billa; Grijalba ta Villalobos'enak aitatuena. Eta porrot egin eben danak. Danak kikilduta itzi ebezan alkarren atzeko ondamendi oneik. Baiña aita Urdaneta ez zan kikildu.

Amazazpi urte zituala eroan eban berarekin Elkano aundiak bere bigarren osteran, gure Ordizia'ko Urdaneta.

Eta an egin zan gizon aundi, itxaslari aundi, Elkano'ren babespean.

* * *

Pazifikoko ixas aundian sartu ziranean, ezkorbut gaitzak jota, antxe il zan Andres Urdaneta'ren eskuetan Elkano aundia.

Eta aren Laguntza barik, berez baliatu bear izan eban Andres gazteak andik aurrera.

Pazifikoko osoa alderik alde igarota, Molukas'eko ugarteetan galduta, emon ebazan amaika urte luze, ango basati ta alboko Portugal'darrakin, amai-bako burruka luzeetan.

* * *

Azkenean, Portugal'darren eskuetara jausi zan, eta India'tik Lisboa'ra etorri zan Urdaneta, lenago bere maixu Elkanok lez munduari inguratze osoa emonda

Ogei ta zortzi urte eukazan oraindik mutillak, eta Kapitan

ospetsu ta itxaslari trebe zan ordurako.

*

VIexiko'ra izan zan aren urrengo urteera.

Albarado gudalburuaren agindupean ibilli zan gero; Florida ta Goi-Mexiko'ko lurraldeetan, aren mutil bizkorren buruzagi.

Bere zentzun eta doai berezia kontuan artuta, Goi-Mexiko orren «errajidore» egin eban ango errege-ordeak.

* * *

Ango Meatz, lantegi, ontzitcgi eta errietan esku bete Janez ebillan unerik ederrenean eta adinik onenean, ara Urdaneta'ren ustebako erabagia: Bere agintaritzan itzi, bere ondasunak ango beartsuai banandu, eta praille sartu zan, Agustin'darrak Mexiko'n eukuen konbentuan.

Mutil eskolatua zan eta urte gitxi barru emon eban bere

lenengo mezea. Eta Praillegaien maixu egin eben laster.

Ixas-larien maixu len eta mixelarien maixu gero.

VIexiko'ko konbentu orretan zito ebazan Urdaneta'k Villalobos'en ondamendiaren barriak, gudalburu orren osteran izan ziran bertoko lau praillek emonda

Auxe bakarrik esan eban berak arein zeaztasunak entzun zituanean: Itxas-ontziak ezeze, bei-gurdi bat be ekarri neinke nik andik ona.

Urdaneta'ren berbok IVIexiko'ko Errege-ordearen belarrietara eldu ziran, eta sorkaldeko giltz orren morroilloa zabaltzeko arazo leporatu eutsonek gure praille barriari.

Bost itxas-ontzi gertatu zituan Urdaneta'k, eta lareun gizon sartuaz eurenara.

Legazpi here laguna jarri eban arein buru eta bera itxaslari lez joan zan.

Andik urte bat baiña lenago, Mexikon zan barriri alai ta zorion, sorkaldearen giltza eskuetan eukala.

URKIOLA'k



LIBURUAK

Ipuin-antzeko

EUSKALDUNAK IPUINLARI

Euskalerrria erri ipuinlaria dogu.

Edozein baserritara sartzen ba'gara, laster entzungo doguz ipuiñak: Erriko jazocrak, sorginkontuak, alegiak.

Baiña gure literaturan ipuinlariak izan arren ez dira ain ugariak, batez be alegi-idazleak.

* * v

ALEGI AK

Zer dira alegiak?

Abereen jazoera eta alkar-izketearen bitartez, gizonai irakatsiak emoten dautsezan ipuiñak. Irakatsi au batzutan «moralcja» deritxon zatitxuan agertzen da.

Alegiak jatorriz India'tikoak dira. An agertu ziran alegi-moltzoak: Pantxatandra ta itopadeza.

Naiz ta abereak norkl izan ez, Ebanjelioan be Jaunak ipuiñen bidez itz egiten dau. Sortaldeko oiturea, antza.

India'tik Persia'tarren eta Arabia'tarren bidez eldu ziran ona. Arabia'tarren-gandik artu eban Alfonso X'ak here Calila c Dimna. Eta Persia'tarren bidez zabaldu ziran Grezia'ko Aisopo ta Erroma'ko Fedro'rengana. Ortik baita Europa'ko iparraldera.

* *

ALEGI EUSKALDUNAK

Euskaldunen artean izan dira erdrazko alegizaleak. Ez aitzu Samaniego ta Iriarte ospetsuak. Euskeraz alegiak idatzi dituenak, Zarate'k berak diñoanez, gitxi ta urriak izan dira.

Alegiak, beste modu batera esan ezin diran egiak esateko bide izaten dira, eta ori egiten dan gure Mikel'ek be.

* * *

MIKEL ZARATE'REN ALEGI AK

Ez da liburu aundia Mikel'ena, baiña bai ederra ta pozgarria.

Alegian barruan agertzen diran arazoak, askatasuna, zapalkuntza, jauntxukeria, aberria ta ola-koak dira.

Mikel'ek darabilen berbetea, bizkaiera da eta garbia, ederra, barritua, irudimenez betea, izan be.

Berba barri batzuk be asmatzen ditu, bearrezkoak diranean. Esaterako: Karteari, eskutitza esaten dautsagu, eskutik doan berbea dalako, ez miñetik. Baiña zelan esan karta ori abere batek idazten ba'dau? ANKATITZA asmau dau IViikel'ek, egokiro.

ALEGI MINGOTSAK

Mikel ZARATE'K

Ba ditu Mikel'ek beste gauza arrigarri batzuk be. Esaterako, ikusi 109'garren orrialdean inurripilloa izkiz eginda. Uitraismoaren ondakiñak!

NORENTZAKO LIBURUA?

Liburu au edozein irakurlerentzat da irakurgarri, baiña batez be elerti-zaleentzat edo literatura maite dabnentzat janaririk atsegiñena izango cia.

Ara irakurleentzat zatitxu bat: Azagariak edo lukiak, leoi jaunaren alde egiten dauan herbatitik artua da:



«Leoi jauna! Gure Jaun eta Jabe zaitugun Leoi ospetsu ta on ori! Gure agintari ta bakegille zuzena zaran Leoi Jauna! Jaunen Jaun agurgarri ori! Agur t'ardi! Otso, tximino, azeri lagun eta gaiñerako batzarkideok: ongi etorri ta agur! Badakizue gure Leoi Jauna asarre dana. Errazoiz gaiñera! Bai orixe! Aita on batek baiño maiteago gaitu guztiok eta gure bake ta zoriona gura dau. Berau dogu gure benetako serbitzaria, aberetarren serbitzari leiala, serbitzarien serbitzaria...»



**JOSE ANTONIO
DE AGIRRE Y
LEKUBE**

**ENTRE LA LIBERTAD
Y LA REVOLUCION
1930 - 1935**

**ENTRE LA LIBERTAD Y LA
REVOLUCION, 1930 - 1935**

**La verdad de un lustro en el
País Vasco**

Idazlea: *Agirre eta Lekube'tar Jo-
seba Andoni.*

Bigarren argitalpena. 611 orrialde
azal cunduaz. 20 x 14 zm.,
irudiak. 525 pezeta.

Geu Argitaldaria. - Bilbo'n.

«Liburu au, labur-labur esanda, host urtera eltzen ez dan aldi labur bateko kondairea da. Baiña aldia ain laburra izan arren, jazocrak arin batzen eta piltzen dira eta garrantzi aundia izan dabelako, gure egunakaz be zer-ikusi aundia dauke. Berrogei urte igaro ondoren, orduko arazoak gaur bizi-bizi dagoz, arduragarriak eta geure arazoak dira. Olantxe izan bear, geure Euskalerraren arazoa dira ta, orain dirala eun urterik ona zuzendu barik degoan arazoa. Gure Lege-Zarrak, Euskal-Lurrraren batasuna, gure izkuntzea, gure jakintzea, gure izaerca.

Benetan be, liburu au ez da, beste barik, kondaircari buruz idatzitako liburu bat; politikeari buruz eta politikari batek idatzitako liburua be ba da».

*(Bigarren argitalpenari Fe-
deriko Zabala'k egin eutsan
sarreratik artuta).*

 **KIRIKIÑO**
EUSKAL KUTXA

Colon de Larreategui, 11
41672 44 Urrut.
BILBAO - 1


Ordain-ordez eta gaztu barik bialdu egidazuz..... ale ENTRE LA
LIBERTAD Y LA REVOLUCION liburuarenak, salneurria 525 pezeta dala.

Izena.....

Zuzenbidea.....

ZAR

Colón de Larretégui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1



70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO
ONDO ERANTZUTEN DAU